

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 5447

*EBAZPENA, 2020ko azaroaren 27koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazten baita Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzako zuzendariorde-lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa.*

Bat etorriaz Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3.a) artikuluan eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2020ko urriaren 14ko Ebazpenarekin (zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzako zuzendariorde-lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko; 2020ko urriaren 29ko EHAA, 214. zk.) laugarren oinarrian xedatutakoarekin,

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Oscar Medina Santamaría jauna izendatzea Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzako zuzendariorde (kodea: 512006; dotazio-zenbakia: 5).

Bigarrena.– Izendapen horrek 2020ko abenduaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio organo honi hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2020ko azaroaren 27a.

Osalaneko zuzendari nagusia,  
LOURDES ÍSCAR REINA.